

# 10 DESBERDINKERIAK MURRIZTEA

# DESBERDINKERIAK MURRIZTEA



## HELBURUA:

Udalerriko bertako desberdinkeriak murriztea

**10 GJH honen helburu nagusia pertsona guztien gizarte inklusio, inklusio ekonomiko eta inklusio politiko osoa eta aukera-berdintasuna gizarteko sektore guztietan sustatzea da.**

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

- Talde desberdinen ongizatea sustatu eta eskaintzen diren baliabide eta zerbitzuak:
  - o Haur, gazte eta nerabeak
  - o Adineko pertsonak
  - o Aniztasun funtzionala duten pertsonak
  - o Atzerrian jaiotako pertsonak
- Etxebizitza babestua

Garapen Jasangarrirako **10. Helburuak** lantzen dituen arloak kontuan hartuz, jarraian zehazten diren GJH izango ditu lankidetzaren eremu gehien:



## ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?

Pertsonen ongizatea sustatzeko talde desberdinen egoera eta udalerrian eskaintzen diren zerbitzu eta baliabideen azterketa egiten da jarraian:


### Haur eta nerabeak

**Haur eta nerabeen** eskubideak eta ongizatea bermatzea da gizarte bezala dugun erronketako bat, hare gehiago kontuan hartzen bada Zarautzen biztanleriaren % 14ak inguru (Open data Zarautz, 3.016 biztanle 2020 urtean) 14 urte baino gutxiago dituela. Arlo honetan, aipatzekoa da Zarautz Herri Hezitzailea programa, zeina udaleko sail desberdinen eta Eusko Jaurlaritzako Berritzegunearen (laguntza zerbitzu gisa eratuak, hezkuntzaren berrikuntza eta hobekuntzarako tresnaren) arteko lankidetzan burutzen den.

## DESBERDINKERIAK MURRIZTEA

Zarautzen adin tarte desberdinetako haur eta gazteei zuzendutako eskaintza espezifikoak ematen da:

- 4-11 urteko tartean dauden haurrei dagokionez, Udalak eskaintzen dituen baliabide edo espazioen artean, **Ludotxo ludoteka** dago, zeinek haurrentzako jolasak eta tailerrak egiteko espazioa eskaintzen duen.



Iturria: Zarauzko Udala


Azken ikasturtetan Ludotxo ludotekako erabiltzaile kopuruak behera egin du, 2017/2018 ikasturtean ia 4.000 erabiltzaile inguru izatetik 3.200 ingurura jaitsi zelarik.

2019/2020 eta 2020/2021 pandemia ondorioz ikasturteak bereziak izan badira ere, 2021/2022 ikasturtean iraila eta abendura arteko erabiltzaileak kontuan hartuz (1.290 erabiltzaile), pandemia aurreko erabiltzaile kopurua berreskuratze bidean dagoela pentsa daiteke.

- 12- 18 urte bitarte gazte edo nerabeen aisialdi eskaintza edo alternatiba gisa, **Haize-Orratz gaztelekua** dago. Gaztelekua gazteentzako espazio bat baino gehiago da, nerabeen arteko elkarbizitzarako baliabideak eta tresnak eskaintzen dituen zerbitzua. Urtean zehar tailer desberdinak antolatzen dira, baita festa edo ekitaldi bereziak ere (lhauterietan, herriko festetan, gabonetan,...). Urtean zehar irteera ugari antolatzen dira baita ere, gazteek naturaz, kirolaz eta inguruneaz gozatzeko eta beraien arteko harremanak sendotzeko helburua dutenak.

Pandemia aurreko azken urtetan Gaztelekuko erabiltzaileek gora egin zuten nabarmenki, aipatzekoa delarik 2017/2018 eta 2018/2019 ikasturteen artean 1.550 erabiltzaile gehiago izan zituela.

2021/2022 ikasturte erabiltzaileei dagokionez, iraila eta abendura bitarteko erabiltzaileak kontuan (3.118 erabiltzaile) hartuz erabiltzaile kopurua pandemia aurrekoen antzekoak izan daitezkeela aurreikusi daiteke.



Iturria: Zarauzko Udala

- 18-30 urte bitarteko gazteei zuzendutako **Gazte zerbitzua** eskaintzen da, gazteen arteko elkartegintza eta partaidetza sustatuz eta gazteak emantzipatu eta euren ikasketak eta lan esparruetan arrakasta lortzeko laguntza eskainiz.

Honetaz gain, gazteen interesekoa izan daitekeen informazio gazteei ezagutzera eman eta izan ditzaketen kezkak argitze aldera, **Gazte informazio bulegoa** dago. Bertan ondorengo gaien inguruko informazioa eta aholkularitza ematen da bai nerabeei, bai gazteei eta baita familiei ere: hezkuntza, lana, aisia, bidaiak, elkarteak, kultura, ...

## DESBERDINKERIAK MURRIZTEA

Udalak eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzuez gain aipagarria da Zarautzen gazteen aisialdia eta dinamizazio helburu duten elkarte edo eragileen lana, zeintzuek Udaleko Gazteria sailarekin elkarlan estua duten: Gurutzurtu Aisialdi taldea, Haur Kultur taldea, Izartxo aisialdi taldea, Txatxarro gazte elkarte eta Txipristin aisialdi taldea.

Gazteen kasuan aipatzekoa da baita ere Udalak Putzuzulo Kultur Elkarteari pabiloi baten erabilera egiteko egindako lagapena, Gaztetxearen birkokatzea baimendu duena.

Gizarte zerbitzuetatik arrisku edo babesgabezia egoeran egon daitezkeen haur eta nerabeen familiei zuzendutako zerbitzuak eskaintzen dira:

- Familiei zuzendutako aholkularitza eta orientazioa
- Eskuhartze soziohezitzailea eta psikosoziala
- Haur eta Nerabeen kalteberatasun eta arrisku egoerak goiz antzemateko eta eskuhartzeko programa

Udalak **Ikaslagunak** programa eskaintzen du baita ere, zailtasunak dituzten gazteei etxerako lanak egiten laguntzeko zerbitzua da. Laguntzen ibiltzen diren pertsonak askotan jubilatua, irakasleak,... izan ohi dira, generazio desberdinen arteko ezagutza trukea eta harremanak sendotuz. Programa honek helburu bikoitza du, batetik heldu eta ume/gazteen arteko harremana sendotzea, hori kalera ere hedatuz eta bestetik etxerako lanak egitean, zailtasunak dituzten ume/gazteen autoestimua hobetzea. Programa hau 2017n jarri zen martxan, ikastetxeak identifikatzen dutelarik programan parte hartzeko interesa edo beharra izan dezaketen umeak/gazteak. 2020-2021 ikasturtean programa bertan behera geratu bazen ere egoera sanitarioaren ondorioz., 2021-2022 ikasturtean berriz aktibatu da.

Bestalde, azken urtean izan dugun pandemiak eragin duen ezohiko egoerak (etxean geratu beharrak, aisialdiaren mugak,...) gazteengan eta beraien ongizatean bereziki eragina izan duenaren susmoa badago ere, udala honen inguruko azterketa egiten ari da eta adin tartearen arabera eragina desberdina izan dela ikusi da:


- Haurrek (0-12 urte) orokorrean familiarekin denbora gehiago pasatzeko aukera izan dutela detektatu da.
- Nerabeen kasuan (12-18 urte) lagunekin dituzten harremanetan edo harreman sozialetan izan du eragin handiena.
- Gazteen kasuan (18-30 urte) pandemiak eragina izan du bai ikasketetan, lan munduaren txertatzean, etxebizitza lortzeko aukeran,... honek emantzipazio adina luzatzea ekarri duelarik baita ere.

Haur, nerabe eta gazteen autonomia sustatzea da udalaren erronka eta helburu nagusietako bat, nerabe eta gazte aktiboak heziz hiritartasun aktiboa sustatuz, baina honetarako, ezinbestekoa da baita ere beraien ahotsa jasotzea eta talde hauek entzutea. Testuinguru honetan, Zarautzko udala Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu duen Gaztematika sarearen partaide da.

# DESBERDINKERIAK MURRIZTEA

## Adineko pertsonak


Zarauzko gizartearen eta konkretuki adineko pertsonen argazkiari dagokionez:



Zarauzko biztanleriaren % 21ak 65 urte baino gehiago ditu eta azken urtetako tendentziak aztertuz, 2016tik Zarauzko biztanleriak zahartzera egin duela ikusi daiteke.

Inguruko datuekin alderatuz, Zarautzen biztanleria Urola Kosta eskualdekoa baina zertxobait zaharragoa bada ere (%20), zahartze indizea Gipuzkoa zein EAEkoa baina baxuagoa da, %23 izan baizen bi horietan 2021ean.

## Mendekotasun-mailaren bat duten udalerriko pertsonak



Zarautzen Mendekotasun-mailaren bat duten pertsonen kopuruak 2020an behera egin du, konkretuki 10.000 biztanleko 328 pertsonak dute I, II edo III graduko mendekotasuna udalerrian.

EAEko eskuragarri dauden azken datuak 2018 urtekoak izanik, urte horretan Zarauzko datua EAEkoa baino baxuagoa zen baita ere, 400 eta 450 besteak beste.

Hori kontutan hartuz, adineko pertsonen zaintza eta ongizatea bermatzea da gizarte bezala dugun erronketako bat, izan ere, adineko biztanleen kopuruak gora egin ahala, arrisku edo mendekotasun egoeran egongo diren pertsonen kopuruak ere gora egingo duela pentsa baitaiteke. Aipatu, baita ere, normalean adineko pertsonen zaintza lanetan atzerrian jaiotako pertsonak eta bereziki emakumeak izan ohi direla.

Adineko pertsonak dituzten **beharrei erantzuteko** Udalak besteak beste ondorengo **baliabide eta zerbitzuak** eskaintzen ditu:

- o Etxez etxeko laguntza zerbitzua


Azken hiru urtetan etxez-etxeko erabiltzaile diren familia kopuruak %23 egin du gora, aipatzekoa delarik udalak emandako ordu kopuruak eta aurrekontua maila handiagoan igo dela, hau da, %34a.

	2019	2020	2021
Familia kopurua	100 familia	114 familia	123 familia
Emandako ordu kopurua	17.215	18.221	22.996
Aurrekontua	360.405 €	400.953 €	482.877 €

Iturria: Zarauzko Udala

## DESBERDINKERIAK MURRIZTEA

- Tele asistentzia zerbitzua bakarrik bizi diren pertsoneri laguntza eskaintzeko.
- Sendian programa
- Mendekotasunari lotutako prestazio ekonomikoak
- Laguntza teknikoak
- Menpekotasuna duten adinekoei zuzendutako eguneko arreta zentroa, Foru Aldundiarekin hitzartutakoa, zeinak 44 plaza eskaintzen dituen.
- Adinekoei zuzendutako tutoretzapeko apartamentua



*Iturria: GFA eta Euskal Udalerriek GJH egiten dieten ekarpena II Txostena, Ihobe*

Udalerrian adineko pertsoneri zuzendutako egoitzetako plaza kopurua EAEkoa baina nabarmenki baxuagoa zen 2019an. Adineko pertsonentzako egoitzako plaza kopurua txikia izanik, itxaron zerrenda nahiko handia da eta beste udalerrri batzuetara joan behar izaten duten batzuk, honek suposatzen dituen arazoekin (familia urrunago izateak bisitatzera joatea zailtzen du,...).

Eguneko zentroari dagokionez, 2019an Zarautzen zegoen plaza kopurua eta EAEko batez bestekoa antzekoak ziren (105 eta 108 hurrenez hurren, 65 urte baino gehiagoko 10.000 biztanleko). Biztanleria aldetik tamaina ertaineko udalerrietan alderatuz, Zarautzko plaza kopurua altuagoa da, 10.000-40.000 biztanleko udalerrietako batez besteko datua 95 baita). Aipatzekoa da Zarautzko Eguneko Zentroan 44 plaza daudela gaur egun eta itxaron zerrenda oso handia ez bada ere, tokia egon bitartean Getariako eguneko zentrorra joateko aukera eta garraioa eskaintzen dira.

Zahartze aktiboa sustatzeko ekimenak ere gauzatzen dira, adineko pertsonak gizartearen parte hartzea sustatuz, bakoitzaren behar eta gaitasunen arabera.

### Dibertsitate funtzionala duten pertsonak

Zenbait zerbitzu eskaini eta aktibitateak antolatzen dira baita ere, aktibo mantendu eta autonomia sustatze aldera.

- Kukufraka aisialdi programa, dibertsitate funtzionala duten 12-20 urte bitarteko gazteei zuzendua
- Kirol jarduerak
- Udaleku irekiak
- Ludoteka
- Zaintza zerbitzua
- ...

Helburua pertsona guztiak eremu komunitarioan txertatzea da eta ildo horretan lan egiten da

Udalak hainbat elkarteekin lankidetzara sustatzen du, zenbait ekimen eta programa elkarlanean jorratuz. Ondorengo elkarteak daude Zarautzen dibertsitate funtzional desberdinak dituzten pertsonekin aritzen direnak: Aspace, Atzegi, Gautena, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa (GKEF) eta Ortzadar.


Aipatzekoa da Udalak **Dibertsitate Funtzionaleko Mahaia** martxan jarri zuela duela urte batzuk, zeina talde desberdinen topagunea den, elkarrekin lan egin eta informazioa partekatze espazioa delarik. Urtean zehar ekimen desberdinak antolatzen dira baita ere.

### Atzerrian jaiotako pertsonak

Atzerrian jaiotako 1.999 pertsona daude Zarautzen 2021 urtean, honek biztanleriaren %8,6 suposatzen duelarik. Portzentaje hau Gipuzkoakoa (%11,3) eta Euskadikoa (%11,2) baino txikiagoa delarik (Zarauzko Udala).

Aipatzekoa da Zarautzen 2020 urtean hartutako joerari eusten zaiola 2022ean ere, urtarrilaren 1ean biztanleriaren %8,39a baita atzerrian jaiotako pertsonen portzentajea.


Era berean, 2010 urtetik aurrera gero eta alde handiagoa dago Zarautzeko eta lurralde eta autonomia erkidegoko portzentajeen artean. 2021ean hiru puntu azpitik dago, 2010ean Zarauzko balioak Gipuzkoa eta EAEkoaren gainetik zeundenean.



Iturria: Zarauzko Udala

Duela urte batzuk atzerrian jaiotako pertsonen gehiengoa emakumezkoa bazen ere, gaur egun emakume eta gizonen arteko proportzioa partekatzen ari da.

## DESBERDINKERIAK MURRIZTEA



Atzerrian jaiotako biztanleriaren gehiengo amerikarra da (batez ere hego eta amerikarrak), %76a suposatzen dutelarik 2022an. Amerikarren artean Nikaraguan jaiotakoak direlarik nagusi.

Azken urtetan Europan jaiotako pertsonen %12a ordezkatzeko dute, Afrikarrek %8a eta Asiakoek %4a.

Iturria: Zarauzko Udala

Udalak **Migraziorako Itun Sozialarekin** bat egiten du, migraziorako harrera- eta integrazio-esparru bat adostu delarik. Testuinguru honetan, Udalak hainbat baliabide eskaintzen dizkie pertsona migranteei Zarautzen integratu daitezeko laguntzeko, nagusiki 3 arlo jorratzen direlarik:

- **Harrera edo ongi etorria:** Honen harira ondorengo baliabideak eskaintzen dira:
  - o Ingurua ezagutu eta administrazioarekiko tramiteak egiteko laguntza eskaintzen da, horretarako "Ongi etorri gida"
  - o Euskara-harrera ikastaroa
  - o Harrera aholkularitza
  - o Aholkularitza juridikoa
  - o Diskriminazioa eta oinarriko eskubideak: Eraberean sarearen arreta zerbitzu espezializatuta.
  - o Atzerriko ikasketak agirien homologazioa
- **Integrazioa**, elkar-ezagutzaren bitartez:
  - o Emakumeen\* etxea
  - o Zarautzik mundura, kultura aniztasuna erakutsi eta aldarrikatzea eta topagune izatea helburu duena.
  - o Bertakoak, gastronomiaren bitartez zarautzar berriak eta beraien kulturak ezagutzeko programa
  - o Bizilagunak: zarautzarrak eta etorkinak elkarren artean ezagutzea, hurbiltzea eta sarea sortzea du helburu ekimen honek, etorri berrien integrazioa sustatuz.
  - o Familia migratzaileei laguntzeko programa, familiak elkartuz eta honek sortzen dituen behar eta egoerara egokitzeko laguntza emanez
- **Sentsibilizazioa** eremu desberdinetan (ikastetxeetan, gizartean orokorrean,..):
  - o Udalak Zurrumurruren aurkako sarean parte hartzen du.
  - o Aniztasunean Bizi: Udalak ekoiztako Erlo telebistako saioa, eskualdeko kultura aniztasunari eta migrazioari buruzko berrien saioa.
  - o Ikastetxeetako sentsibilizazio programak: kultura aniztasunaren aldeko sentsibilizazioa lantzeko eta jarrera arrazista eta xenofoboiei aurre egitea helburu dutenak.
  - o Zainketa eta etxeko enpleguari buruzko informazioa

Honetaz gain, **Nazioarteko babesa eskatzen dutenei zuzendutako arreta zerbitzua** eskaintzen du udalak, errefuxiatuak hartzeko eta integratzeko proiektua hain zuzen ere, 2017 urtetik 18 familia (54 pertsona) artatu direlarik Zarautzen programa honen testuinguruan. Udalak errefuxiatuei zuzendutako harrera plaza edo apartamentuak ditu baita ere.



### Etxebizitza babestua

Orokorrean bazterkeria jasateko arriskua duten pertsona eta taldeen zailtasun nagusietako bat etxebizitza lortzea da, hare gehiago Zarautzen, etxebizitzaren prezio altua eta alokairuko etxebizitza parkearen eskasia dela eta (alokairuan dauden etxebizitza gehienak uda sasoiko alokairua izan ohi dira). Horregatik garrantzitsua da jabetza- eta alokairu-erregimen konbinazioa eta etxebizitza libreen eta babestuen konbinazio egokiak sustatzea.

Alokairuko etxebizitzari dagokionez, parkea handitu eta hutsik dauden etxebizitzen koopurua murrizte aldera, hutsik dauden etxebizitzetako IBI zergaren igoera adostu zen, %100koa izanik. Arlo honetan, Eusko Jaurlaritzak etxebizitza hutsak merkaturatzeko programak martxan baditu ere, bertan sartu ahal izateko etxebizitzek egoera konkretuak bete behar dituzte eta kasu askotan horretarako beharrezkoa de etxebizitzak birgaitzea, honek suposatzen duen konstuarekin.

Hauetaz gain, Udalak azken urtean babestutako etxebizitzen parkea handitzeko zenbait etxebizitza promozio gauzatu ditu eta gauzatzen ari da:

Zarautzen kasuan, 2021ean Etxebiden 1.470 etxebizitza eskari jaso dira, horietako gehiengo zabala etxebizitza erosteko eskariak izan zirelarik (1.020 eskari) eta alokairurako 450 eskari soilik jaso ziren.

Eraiki diren etxebizitzetara dagokionez, ondorengoak burutu dira edo burutzen ari dira azken bi urtetan:

- Aldapeta: 30 babes ofizialeko etxebizitza tasatuak jabetzan
- Aldapeta: 20 babes ofizialeko etxebizitza alokairuan (horietako 2 etxebizitza Udalarenak, tutoretzapeko etxebizitza erabilera dutelarik)
- Salberdin 120 babes ofizialeko etxebizitza jabetzan
- Salberdin: 52 udal etxebizitza tasatu jabetzan

Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra (ZHAPO) kontutan izanik, ez da aipatu gabe utzi nahi etxebizitza erabilerarako eraikigarritasuna handitu duten plan orokorraren aldaketak izan direla. Honek, **etxebizitza babestuei** bideratutako lurzorua ere handitzea ekarri du (babes sozialekoak eta erregimen bereziko etxebizitza tasatuak):

- Amillubi: Eraikiko diren guztiak babes sozialeko etxebizitzetara bideratuko da.
- Lanpardon: Eraikiko diren guztiak babes sozialeko etxebizitzetara bideratuko da eta Eusko Jaurlaritzarekin adostuta, guztiak errentan emango dira.
- Iñurritza: eraikiko den %20 babes soziala eta beste %20 erregimen bereziko etxebizitza tasatua izango dira.

Guzti hori kontutan izanik, bizitegirako ezarritako hirigintza-eraikigarritasunaren gehikuntzaren %46 babes publikoko araubideren bati atxikita dago (%24,10 babes sozialeko etxebizitzak eta %21,90 erregimen bereziko etxebizitza tasatuak). Hau horrela izanik, gainditu egiten da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak eskatzen duena.

Gainera, **zuzkidura bizitokietara** bideratutako lurzorua ere handitu egin da ZHAPOren aldaketekin, hain zuzen ere 2008an aurreikusitakoa %19,5ean handitu da, guztira 4.781,70 m<sup>2</sup> bideratuz. Zuzkidurarako etxebizitzak Salberdin, Hegoalde, Amillubia eta itxasmendi eta Irita artean aurreikusita daude.

## EKIMEN ESANGURATSUAK

---

- **Babesgabetasun egoerak goiz atzeman eta erantzuteko programa:** lanketa espezifiko egitean da, batez ere haurrak dauden eremuetako zerbitzuekin, babesgabezia egoerak ahalik eta bizkorren detektatu eta esku hartzeko.

### Haur, nerabe eta gazteak

- **Ludoteka eta gaztetxokoa.**
- **Zarautz Herri Hezitzailea programa,** zeinetan umeak erdigunean hartuta, udaleko hainbat sailen artean ekimen espezifikoak lantzen dira
- **Ikaslagunak programa:** Ikasleen artean berdintasun baloreak sendotu eta inklusio eta integrazioa sustatzeko helburuarekin, hezkuntza eta gizarte zerbitzuetako kultur aniztasuneko teknikarien artean burutzen dena.

### Adineko pertsonak

- **Adinekoen Mahaia:** bertan udalerrian adineko pertsonen zuzendutako ekintzak sustatzen dituzten elkarteek parte hartzen dute, udalarekin elkarlanean.

### Dibertsitate funtzionala duten pertsonak

- **Dibertsitate funtzionaleko Mahaia,** elkarte desberdinen topagunea, zeinak ekintza desberdinak antolatzen dituen.

### Atzerrian jaiotako pertsonak

- **Bizilagun berrientzako harrera gida:** Zarautzera etortzen diren bizilagun berriei zuzendutako argitalpena, zeinetan herrira iristean izan ditzaketen oinarriko beharrak betetzeko laguntza eta informazio praktikoa zehazten den, hala nola, udalerrian dauden zerbitzuei, programei eta ekimenei buruzko informazioa azaltzen den,
- **Berrelkarketa programa,** familia migranteak elkartzen direnerako laguntza taldea da, egoera berrira egokitzen laguntzeko helburua duena.
- **Nazioarteko babesa eskatzen dutenei zuzendutako arreta zerbitzua**

### Etxebizitza babestua

- **Etxebizitza babestuen sustapena.** azken urtetan babestutako eta prezio-tasatuta 220 etxebizitza baino gehiago eraiki edo eraikitzen ari dira Zarautzen eta datozen urtetan bultzada nabarmena ematea aurreikusten da.



## ERAGILEEN PERTZEPZIOA

---

- Zarautz herri anitza da (baliabide aldetik, zerbitzuak,...) jende desberdina bizi dena, adin tarte desberdinetakoa baita ere eta horrek armonia ematen dio herriari, aberastasuna.
- Hala ere, herri garestia dela aipatzen da (etxebizitza bereziki, baina baita bestelakoetan ere, dendak,...) honek edozein pertsonak (bertako gazte askok, gaitasun ekonomiko ertain/altua ez duten pertsonak,...) bertan bizitzeko aukera ez izatea dakarrelarik.
- Babestutako etxebizitza, eta batez ere alokairuan, gutxi egin dira azken urtetan eta hau sustatzea beharrezkotzat jo da.
- Jendearen integrazioari dagokionez, iritzi kontrajarriak daude, batetik jendea ondo hartzen duen herri bezala identifikatzen dute batzuk, kanpotik datorrena ondo hartu eta

integratzeko aukera ematen duen herri bezala; baina kontrako iritzia ere jaso da, hau da, herri itxia dela eta kanpokoek “bertakotzea” eta bertan integratzea zaila dutela.

- Herria hazten ari da, geroz eta adineko pertsona gehiago dago eta talde honi zuzendutako baliabide eta zerbitzuak (egoitza, eguneko zentroa,..) gaur egun eta etorkizunean ere nahikoak izango ote diren kezka dago. Zaintza beharrei erantzuteko gaitasuna egongo den edo azpiegiturak gauzatzeko espaziorik ba ote dagoen zalantza dago. Eredua birpentsatu egin beharko litzateke, asistentzialetik inklusibora salto eginez.
- Herria oso inklusiboa ez dela komentatu da.
- Zarautzen adineko pertsonak aktiboak dira, baina bakarrik bizi diren adineko pertsonak lagundu eta babestea ezinbestekoa da.

### ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOERAK

Etorkizunari begira, herritarren aukera berdintasuna sustatzeko arloan ondorengo lan-ildo edo tendentzia nagusiak identifikatzen dira:

#### **Haur, nerabe eta gazteak**

- Haur, nerabe eta gazteen ahotsa entzutea, beraien ikuspuntua ezagutzeko baliabideak jartzea eta parte hartzea sustatzea eremu eta arlo desberdinetan, baita herriaren diseinuan ere. Horretarako beharrezkoa da haur, gazte eta nerabeak iritzi- ematean trebatzea.
- Zarauzko gazte sortzaileei ikusgarritasuna emateko aukerak eskaini.

#### **Adineko pertsonak**

- Adineko pertsonen zuzendutako arreta ereduaren eta zerbitzuen inguruko hausnarketa egin eta bertan identifikatutako beharrei erantzuteko baliabideak bermatzea.
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zuzendutako arreta ereduaren eta zerbitzuen inguruko hausnarketa egin eta bertan identifikatutako beharrei erantzuteko baliabideak bermatzea.

#### **Dibertsitate funtzionala duten pertsonak**

- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzendutako eguneko arreta zerbitzu balioanitza martxan jartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzendutako tutoretzapeko etxebizitzak eskaini.

#### **Etxebizitza babestua**

- Zuzkidura etxebizitzak eta babes sozialeko etxebizitzak eraiki